



TXI

LOPEZ-MENDIZABAL XAKA

XABIERTXO

105
Nona Nereza
66485702

~~Mugerza Tar Nereza~~

~~Mugerza-Tar Nereza~~

7 Uhte

Emen erabilli diran \bar{L} , eta \bar{I} 'ren ordez
 \underline{Ll} eta \underline{ll} erabilli ditezke. Eta \mathring{R} eta
 \mathring{r} 'ren ordez \underline{Rr} eta \underline{rr} .

LOPEZ-MENDIZABAL'DAR IXAKA'K

XABIERTXO

*Umiei euskeraz irakurtzen erakusteko
idaztia.*

TXIKI'ren edergaitiak.

EUSKALERIAREN ALDE'k
1923'g. urtean saritua.

LAUGARREN ARGITALDIA

Nerea Mugerra

1970. - Tolosa'n, Lopez-Mendizabal'enean. - Conde de Ibar, 6.

XABIERTXO

nere semeari.



JAUNGOIKOA

Jaungoikoa da gauz guztien egilea.
Berak egin ditu Ludia, Eguzkia, Ilar-
gia eta izar guztiak.

Berak egiñak dira Ludi ontako lur,
ibai, mendi, itxaso, belar, zuaitz, txori,
abere eta ikusten degun guztia,


Berak egin gaitu gu ere. Onak izan
gaitzen, ta gero, il ondoren, betiko
zoriona izan dezagun egin gaitu Jaun-
goikoak.

Berari zor diogu bizia eta degun
guzia.

Jainkoa biotzez maite izan bear degu.

XABIERTXO

Emen ageri dan mutiltxo au Xabier-
txo da.



—Egun on, ama-
txo. Egun on, aita.

—Egun on, Xabier-
txo.

Jekitzerakoan egun
onak eman bear dira.

Aita eta ama asko
maite ditu Xabier-
txo'k.

Xabiertxo oso ona
da. Bere aribea Iziar-
txo'k asko maite du.

Seme ona gura-
soen poza izaten da.

Ume onak ez dira

beñere alkafen artean asaretzen.

Jainkoak ez du nai iñori kalte egi-
terik.

Guziok anayak gera ta guziok alkar
maite izatea nai du Jainkoak.

IZIARTXO

Emen aurrean daukazuten au Iziar-
txo da.

Bere anai Xa-
biertxo'k bezela,
jeki ta bereala
Jainkoari eskerak
emateko, *Aita gu-
rea* eta *Agur Ma-
ria* esango ditu.

Oeratzean ere
beti egiten du otoj.

Lo dagoanean
zaindu dezala es-
katzen dio Jain-
koari.

Eta etxeko gu-
ziaz osasuna e-
man dezayela.

Iziartxo oso biotz onekoa da. Ixila,
zintzoa ta garbia. Bere gurasoak asko
maite dute. Bere amari etxea txukun-
tzen ere laguntzen dio.

Ez du beñere gezurik esaten.

Ez da beñere gezurik esan bear.



GARBITASUNA.

Xabierto'k ikastolara joan baño lenago arpegia eta eskuak urez ongi garbitzen ditu; baita ilea oraztu eta jantziari autsa kendu ere.

Bazkaldu baño len beti eskuak eta bazkal-ondoan aboa urez garbitzen ditu. Ortz eta agiñak sendoak izan eta luzaroan irauteko aboa garbitzea dala onena esaten dio Amak.

Garbitasuna osasuna da. Izan gaitetzen garbiak.

IKASTOLARA.

Xabierto'k ikastolara joan baño lenago bere aita eta amari agur egiten die, eta bere afeba lziartxo'rekin etxetik ateratzen da.

Bidean ez dira inun gelditzen.

Ikastolara joan gabe bidean lagun gaiztoakin biltzen danak, ez du beñere gauz onik ikasiko.

Xabierto'k egun-onak ematen dizkio Irakasleari eta gero onek esandako guzia ongi entzuten du, Onela laister izango da Xabierto mutil guzietan geyen dakiana.

IKASTOLAKO ATEAN.

Ikastolako atean bere lagun bat arkitzen du.

—Nora oa?

—Ikastolara.

—Goazemak alkafeekin zibetan jolastera.

—Ez; ikastolara joan nai diat. Joaten ez ba-gaituk ez diagu ezer ikasiko.

Xabierto'k ikasteko gogoa du.

Xabierto mutil on bat izango da.

IRAKURTZEA BEAÑA DA.



Xabierto'k ikasi du irakurtzen.

Martin'ek, alpeña dalako, ez du irakurtzen ikasi nai.

Beste lagun guziak bereala ikasi zuten. Eta gauz politak irakurtzen zituzten: *Manu Zorgin* ta *Baso-jaunaren* edestiak. Eta pozez aritzen ziran aek irakurtzen.

Martin, beriz, beti aspertuta egoten zan.

—Ik ere ikasi zak, eta gauz politak jakingo dituk—esan zion Xabier'ek.

Eta Martin'ek irakurtzen ikasi zuen. Etzayo, ez, damutu.

Ez jakiña, erukañi da.

GIZABIDEA

Gizabideak erakusten digu zer eratan ibili bear degun gizartean.

Umeak elizan dagoanean, ez du ibili bear batetik bestera, itz egiten eta atzera begiratzen. Jainkoaren etxean dago eta ixil eta apal egon bear du.

Etxean eta ikastolan ere istilu gabe egon ta ibili bear luke. Ume gaizki eziak beti izketan eta beti deadarka ibiltzen dira.

Etxean beti burutsik egon bear da.

Mayean ezagutzen da ondoen, umea ongi ezia dagoan ala ez. Agintzen dioten tokian jariko da eta ez da jaten asiko besteak asi artean. Aboan jana daukanean ez du urik artuko, eta edan-aurretik eta atzetik ezpañak ezpain-zapiz garbituko ditu.

Ume ondo ezia, nunai ondo ikusia izango da.

GIZONA

Gizona Jainkoak lur piska batez egin zuen.

Eta Bere antzera egin zuelako gizonaren soña arigarria ba-da, bere adimena oraindik ere arigariagoa da.

Onetsi dezagun Jainkoa, zortu gaituelako.

GIZA-SOÑA

Gizonaren soñak iru zati ditu: Burua, Soin-enboña eta Soin-adañak.


Buruan ditugu begiak, belariak eta suduñak: *begiak*, gauzak ikusteko; *belariak*, otsak entzuteko; eta *suduñak*, usaya artzeko.

Aboan ditugu ortzak eta agiñak eta mingaña: *ortzak* eta *agiñak*, janariak puskatzeko, eta *mingaña* itz egiteko.

Buruan ditugu *muñak* ere.

Burua da gure soñaren zatirik nagusia.

SOIN-ENBOÑA



Soin-enboñak bi zati ditu: *bulaña* ta *sabela*.

Bulañean bi aldetara *birikak* ditugu. Oen bidez arnasa artzen degu.

Biriken artean *biotza* dago. Biotzak ibilazten du gure zañetan odola, eta gelditu gabe beti, lanean ari da gu bizi gaitezen.

Sabelean, *urdala*, *gibela*, *giltzurriñak* eta *esteak* ditugu.

Soña zutik egon dedin, *bizkar-ezura* degu atzean.

Urdalean, batez ere, janariak txetzen dira.

Azitzeko jan egin bear da.

Bañan geyegi jatea kaltegarri da.

SOIN-ADARAK

Soñeko garaikaldian *besoak* ditugu. Beso bakoitzak zati oek ditu: sorbalda, besondoa, besagaña, esku-mutuña eta eskua.

Esku bakoitzean bost beatz ditugu.

Azpiko soin-adar bakoitzean, istarra, belauna, aztala, txonkatila eta oña dauzkagu.

Eskuak gauzak artzeko dira eta oñak zutik egon eta ibiltzeko.

IKUSMENA



Begien bidez, ikusi egiten degu.

Begiak ditugulako ikusten ditugu gure aita, gure ama, gure anayak, gure ariebak: ikusten ditugu baita mendiak ere eta zelayak, itsasoa, eguzkia eta izañak.

Begiak esaten digute gauzak zuriak, beltzak, urdiñak ala gorriak diran; ta

baita gauz oek uruti ala bertan dauden ere.

Betazalak, begiak estaltzeko ditugu eta betazalen ertzetan betileak.

Itxu gaxoak erukañi dira. Betiko gaubean bizi dira. Beren eruki izan dezagun.

ENTZUMENA



Belarrien bidez entzuten ditugu itzak, oyuak eta deadar ta karaxiak. Entzuten degun guziari otsa deritzayogu.

Belariak esaten digute zein diran ots atsegiñak eta ots atsekabeak.

Ongi entzuten ez ba-degu, ezin genezake gauzen beñi zuzen jakin. Ondo entzuteko buruak ere ernai egon bear du.

Umeak ez ba-dute burua ernai eukitzen, ez dituzte irakaslearen erakuspennak entzungo, eta onela ez dute ezer ere ikasiko. Entzun ondo, ume maiteak.

USAIMENA



Suduñaren bidez artzen ditugu usayak.

Sagañaren eta lore askoen usai gozoak atsegindu egiten gaituzte.

Zakuñak urutitik sumatzen du bere nagusia.

Suduñak bereala esaten digu aize kaltegaría nun dagoen. Usai txarëko aizea osasunarentzat kaltegarí da.

GOZAMENA




Aboaz eta batez ere ao-sapayaren bidez artzen degu gauzen gozoa.

Sagar bat ikusi genezake, ia bere usaya artu ere bai, bañan bere gozoa artzeko bere puskatxo bat bederik aboan sartu bear degu.

Eztia, gozoa da, itsasoko ura, gaziá; ozpiña, gañatza. Sagar batzuek, gaziak dira; besteak, gezak; eta beste batzuek, gazi-gezak.

IKUMENA.



Eskuaren bidez ikutzen ditugu gauzak. Berak esaten digu ikutzen deguna biguña ala gogoña dan; leguna ala lakaña; otza ala beroa.

Oñak ere laguntzen diote ontan eskuai. Bereala esaten digute oñak toki biguñean ala gogorean gauden; toki zakañean ala iristakoñan gabiltzan.

Askotan gure eskuak aldatu-azten digute, begiz oker artu degun iritzia. Begiz legun agertzen zitzaiguna, eskuak, maiz, lakaña zala azaltzen digute.

Eskua izaten da itxu gaxoaren begia.

GOGOIA.

Jainkoak gizonaren soña, auts piska batez egin zuan eta arpegian aize emanaz gogo edo anima sortu zuen aren baruan. Gogo edo animak bizi gaitu.

Gogoaren bidez oldoztu edo pentsatzen degu.

Gure maitetasunak, gure atsegiñak, gure atsekabeak, gauzen eta egipenen gogorapena, gure asmoak, ez daude soñean, gogoan edo animan baizik.

Ajola gutxi bear liguke soña eder edo itsusi izateak.

Anima garbia, ona, maitatia; auxen da guziok izaten alegindu bear gendukena.

Gure anima ez da ilko soñarekin baitan. Soña, beñiz ere, auts biurtuko da; bañan gogoak beti iraungo du. Ilezkoña da gure gogoia.

Izan gaitezen gorputzez garbiak; bañan animaz al bada garbiagoak.

Anima on eta garbiai gure Jainkoak betiko zoriona emango die.

JANTZIA



Neguan, jantzi lodiagoak erabiltzen ditugu. Jantzi beroenak, artilezkoak dira. Artilea ardiaren ileaz egiña da.


Udaran jantzi arriñagoak erabiltzen dira. Eunaz eta oyalaz egiten dira gurre jantzi edo soñekoak.

Abarkak dira aspalditik gure baseñitarak ibiltzen dituzten oñetakoak.

Jantziak austen diranean jostoratzaz josten dira.

Ume txukunak soñeko gutxi uñatzen du.

JANARIAK.



Gizonak ogia, barazkiak, igaliak, aragia, arayak jaten ditu.

Goizetik artzen daniari *gosaria* deitzen diogu, eguerdikoa-ri *bazkaria* eta gabekoari *aparia*.

Zaldiak, beyak, astoak, ardiak belarñ jaten dute.

Zakurak, legoyak, katamotzak, aragizaleak dira.

Katuak, araya nayago du.

Oloak, aleak jaten ditu.

Txori geyenak, aleak eta zomoñoak jaten dituzte.

Geyegi jatea kaltegarri da.

Ez da beñere geyegi jan bear.

OGIA.

Garia bildu ondoren igara batera, eřota batera, eramaten da.

An eřotariak alea eioaz, autsa egiten du. Autso oni iriřa deritzayo.

Okiřak, ur eta ariřaz, orea egiten du.

Gero orantza erantsi-ta legamia egiten da.

Ondoren labean eře eta ogia egiřa gelditzen da.

OGIRIK EZ DA BEÑERE

BOTA BEAR.

Martin'i bere amak ogi zafi bat eman dio gañean eztiarekin.

Martin'ek ezti mizkatzen du.

Eta ogia bota egin du.

Ori gaizki egiřa da.

Ez da ogirik beñere jaurti bear.

Beartsu askok pozik artuko zuten ogi-puska ori.

EDARIAK



Edaririk onena *ura* da.

Ardoa matsaz egiřa da, eta *sagardoa* saęařaz.

Beyak ematen digu *esnea*.

Esnea umientzat oso ona da.

Esneaz egiten da gazta.

Ardoak, geyegi edanezkero, kalte aundiak ekartzen ditu.

IZIARTXO'K BIOTZ ONA DU.

Iziartxo eskolatik dator.

Bidean, oñutsik dabilen ume gaxo bat ikusten du.

—Atoz nerekin etxera eta oñetakoak emango dizkitzut.

Etxera etofi diranean, amari esan
dio guzia.

Amak umetxoari oñetako batzuek
eman dizkio.

Al dan guzian on egin bear da.

ESAERA ZAĀAK.

Gaur egin dezakezuna ez biarko
utzi.

Zerofek egin dezakezuna besteri ez
egin-azi.

Merkea dalako bear ez dezun gau-
zik ez beñere erosi.

Afokeriak, diru asko eramaten digu.

Gure burua goregi jaso nayak, as-
kotan paġaġafi uzten gaitu.


Gutxitan damutzen zaigu gutxi jana;
bañan geyegi jana, askotan.

Gogoko tokian, aldapik ez.

Gauz guziak bere alde onetik ar
itzazu.

Ez geyegi itzegin, nai ez bada utsegin.

ÉREGEA TA TXIMUAK.




Érege batek tximu asko omen zituen,
eta dantzan egiten erakutsi-azi zien.

Bein, soñeko edereġ jantzi zituan eta
ayen dantzak ikustera lagun batzuei
ots egin zien.

Ba-zebiltzan dantzan tximuak, bañan
ikusle aetako bati gogoratu zitzayon
intxaur batzuek dantzariyai botatzea.

Berealaxe beren dantzak utzi-ta, txi-
mu guziak, intxaufak arapatu beareġ,
alkaġen artean buġukan asi ziran, eta
alkaġi aġamazka soñekoak autsi zituz-
ten eta len bezin tximu geldituaz.

Onek erakusten digu ez duala jan-
tziak egiten gizona. Eta on bezela ager-
tu nai ba-du norbaitek gaizto izanik,
azkenean gaizto bezela azalduko dala.



ETXEA.

Ludi edo lur ontan izan ziran lenbiko gizonak, leizetan eta arkaizpetan bizi ziran.


Gero txabolak egiten asi ziran.

Abere gaiztoen atzapañetan ez erortzeko, txabola oek, askotan, uretan sartutako makil-gañean egiten ziuzten.

Gaurko egunean gizonok etxeetan bizi izaten gera.

Etxe oek batzuetan iru ta lau bizitza ta baita geyago ere izaten dituzte.

KUN-KUN.



Ez ñegar egin. Nik emango, bai,
sagar bat ximel-ximela:
amonia bezin ximura eta
goxoa bera bezela.
Au janaz, ondo, magaletxoan
atsegindurik aurrena,
seaskan lo lo, nere potxolo,
jariko zaitut berela.

Ekatzu muxu
gero lo egin dezazun.
Lo, lo, tira maitea;
lo, lo... kunkun, kunkun...

Aingeru maite zoragafia
 zorigaitz bat eztezuna,
 seaskan orla mugira geldiz
 amets egiten dezuna;
 zeñen goxoak diran zuretzat,
 nere maitetxo kufuna,
 amon xararen kantuak eta
 seaskatxoan kunkuna!... *E. Arrese'k*

ERIA



Etxe asko alkañen bertan biltzen diranean eria egiten dute.

Eri batean kaleak edo karrikak, enparantzak, ibiltokiak, lantegiak, ostatuak eta beste gauz asko ikusten ditugu.

Eriko-etxean, eria zaindu ta zuzentzen dutenak biltzen dira.

Ibayak alde batetik bestera igarotzeko izaten dira zubiak.

Eliza Jainkoaren etxea da, eta Berari otoi egitera joaten gera Elizara.

BASERIA.

Baseñian, nekazaria bizi da.
 Bere soroak bertan ditu eta bere basoak inguruan. Mendi-gañean, atsegintasunez beterik, txuri-txuri ikusten degu baseña.

NERE ETXEA.

Ikusten dezu, goizean
 argia asten danean,
 menditxo baten gañean,
 etxe txikitxo aurre-txuri bat
 lau aitz andiren artean
 iturritxo bat aldean
 txakur txuri bat atean?
 An bizi naiz ni pakean.

Naiz ez izan gaztelua
 maite det nik sor-lekua
 aiten aitek autatua.
 Etxetik urun zait iduritzen
 nunbait naizela galdua;
 antxen ni bainaiz sortua,
 an utziko det mundua,
 galtzen ez ba-det zentzua.

Ez da luñean gizonik
 ez ta ere jaun aundirik
 ni bañon obeki danik:
 ba-det andrea, ba-det semea
 ba-det alaba ere nik;
 osasun ona batetik,
 ontasun aski bestetik...
 zer nai dezaket besterik?

(Elizanburu'k)

ARGIA.



Egunez ar-
 gi dago.

Eguzkiak
 bere argia nu-
 nai zabaltzen
 du.

Gabez, ilar-
 girik ez da-
 gonean, ilun
 dago.

Eta etxe ba-
 ñenean ere ez
 da ezer ikus-
 ten.

Ortarako argia piztu bear da.
 Aspaldi oliyoaz, argizayaz, leñargi

edo eretxiñaz eta añoliyoaz egiten zu-
 ten argia.

Orain tximistargi edera eri txikiene-
 tan eta baseñietan ere ikusten degu.

Gure aurrekoak oñelako argi edera
 ikusi izan ba-zuten, berari begira zora-
 tu egingo ziran.

ARGIÑA TA ZURGIÑA.

Oek izan dira gizonaren lenbiziko-
 tako langintzak. Bion artean egiten di-
 tuzte etxeak.

Argiñak ormak egiten ditu. Lenbizi
 lurpean ormaren oña artzen du. Gero
 aña añaaren gañean ipiñiaz ormak jaso.

Zurgiñak edo arotzak zura landuaz
 ateak ta leyoak egiten ditu.

Berak egingo dizkigu baita alki, mai,
 maladi edo zurgu ta beste gauz as-
 ko ere.

Etxegaña ere berak egiten du. Etxe-
 gaña telaz estaltzen da, euria bañena
 sartu ez dedin.

ALAITASUNA.



Xabierto beti pozik dago.
 Bere lagunakin jolasten da.
 Martin, beñiz, beti kopetilun dago.
 Bere lagunak bakarik uzten dute.
 Xabierto alaya da.
 Ume alayak, oso maiteak izaten dira.

LANGINTZAK

Ogia, okiñaren etxean egiten da.
 Aragia, arategian saltzen da.
 Gatza, ozpiña, lukainkak, babafunak,
 ilafak, jangai-saltokian.

Gozokiak, gozotegian.
 Ardoa, ardotegian; sagardoa, sagar-
 dotegian.
 Eunak eta oyala, oyaldegian.
 Oñetakoak, oñetakotegian.

BESTE LANGINTZAK.

Beste langintz asko ere ba-dira.
 Jostunak egiten dizkigu gure jan-
 tziak.
 Idaztigileak, irakurtzen ditugun idaz-
 tiak.
 Añantzaleak arapatzen ditu arayak.
 Ikazkiñak egiten du ikatza.
 Sendagileak sendatzen gaitu gaxo-
 tzen geranean.
 Bizargiñak bizaña kendu eta ilea
 moztzen du.
 Nekazariak lantzen ditu luñak.
 Erementari edo burniarotzak, bur-
 niaz gauz asko egiten ditu.
 Baratza-zayak zaintzen dizkigu beñiz
 gure baratzak.

MENASTAK.

Burnia, menasta da.

Beruna, ufea, ta zilara ere, menastak dira.

Menastak, lurpean arkitzen dira.

Gauz asko, menastaz egiñak dira.

Ufe, zilar ta burnigofiz egiña da dirua.

Ufe ta zilaretik gutxi da, ta garestiak dira.

Geyena erabiltzen dana burnia da.

MENDIAK.

Ludiaren zimurari mendiak deitzen diegu.

Mendiak dira, gu bizi geran tokiaren apaingari.

Mendi oetako batzuek oso goituak dira, eta tontora beti eluretan dute.

Ernio-mendi'tik erri asko ikusi ditezke. Eta eguraldi garbia danean, urutira itxasoak urdin-urdin ikusten da.



ABENDAK.



Gizon guziak
soña berdintsua
dute.

Bañan
lañuaren margoa ez
dute berdiña.

Ludi ontan abenda asko dira.

Batzuek, lañua zuria dute.

Besteak, oria.

Besteak, goñia.

Besteak, beltza.

Bañan guziok,
Jainkoaren semeak
gera eta geren
artean anayak.




AZIA.

Landare guziak, beren azia ematen dute. Azi bat lurpean sartzen ba-da ernetu egiten da. Bañan ofetarako urez busti bear da. Eta bero egin bear du.

Udaberian, batez ere, ernetzen dira landareak. Azia erne danean, jayo ta landare egiten da.

Azi txiki-txiki batetik askotan zuaitz aundi bat sortzen da.

ZUAITZA.



Zuaitza da luñaren jantzirik edefena.
Begira zayozute zuaitz ofi.
Bere zañak luñera josia daukate.
Bere geñia goruntz jasotzen da.
Goraxeago adarñak zabaltzen ditu.
Adarñak ostoz eta lorez beteak daude.
Lore oek, gero, igali edefak emango dituzte.

Zuaitzak bere zañetatik artzen du janaria.

Zañak lurpean artzen dute janaria.

KABIAK.



Arbazta txikiak bat-banaka bilduaz Udaberian egiten dituzte txoriak beren kabiak. Arbazta txiki ta belar-izpiz egiñak izaten dira txori-kabiak. Afautzatxoak egiten ditu txoriak kabian eta afautzatxoak bero-beroan euki ondoren txori txikiak jayotzen dira:

Txoriak laguntz aundiak egiten dizkigute. Zomoño gaizto asko iltzen dituzte.

Abesti gozo ta politak abestuaz, gure biotza atseginez betetzen digute.

Ez egin txori gaxoai kalterik. Ez añirik bota txoriai.

Ez dezazutela txori-kabirik autsi.

ENARA.

Enarak gure leyo-ertz ta tela-egatzpeetan ipintzen dituzte beren kabiak.

Egan dabilzala enarak zomoño gaizto asko il eta aizea garbitzen dute.

Udazkenean enarak emendik alde egiten du. Toki epelagoetara joaten da.

Bañan ufengo udaberian, len egin zuen kabira etoriko da beñiz ere.

UME ERUKITSUA.

Iziartxo'k etxeko atadian gaizki jantzitako ume bat ikusi du.

—Nun bizi zera?

—Etxerik ez det.

—Ogi puska bat jango al dezu?

—Bai eta pozik, oraindik ezer jan gabe nago-ta.

—Tori, ba, ogi-zati au.

—Eskafik asko.

Iziartxo biotz-erukitsua da.

Gose danari jaten emayozute.



ARTZAYA ETA ARDIAK.

—Atozte onontz laster,
atozte, anayak—
deadar egiten du
Perutxo artzayak;
—otso aundi bat dator
mendi oyek bera,
zuzen-zuzen onera
ardiak jatera.—

Ba-dijoaz anayak
makilak arturik
belduñez geldi dedin
ardi gabetanik.
Iritxitzen dirade
lertzeko zorian,
bañan ez da ageri
otsorik mendian.

Biurturik ba-daude
geldiro etxean

orobat gertatzen da
biaramonean.
Bigarren txalmak dauzka
txit ereztaturik;
urangoan ez diote
egin jaramonik.

Orduan egiazki
otsoa jexiaz
menditik artaldera,
laister an asi zan
ardirik ederenak
iltzen eta jaten,
eta, eruki zana,
artaldea galtzen.

Gezura esan zuen
bi bider artzayak
eta ez zioten nai
sinistu anayak.

—
Gezurriak egia
baldin ba-du esaten,
gezurria dalako
etzayo sinisten.
Onela egiten du
beretzat kaltea.
On da beti egia
nonai esatea.

(Iturriaga)

URA.

Iturietako ura, edateko ona da.
Iturietako urak, ibayetara jeisten dira;
eta ibayetako urak, itsasora.

Itsasoko ura, gazia da.

Iturietakoa, geza.

Uraren lufiñak, odehyak eta lañoak egiten ditu;
eta oetatik euria erortzen da.

Urik gabe ez gu, ez abere, ez belar,
ez zuaizik ezin bizi gindezke.

Beraz, ura bear-beaña da.

URAREN BEAÑA.

Ezerk ez digu urak baño obeto egafia kentzen.

Uraz garbitzen ditugu gure sofia, musua eta eskuak.

Uraz garbitzen dira gure jantziak, ontziak eta beste gauz asko.

Belafak, landareak, zuaizak, ura bear dute ernetzeko eta azi ta beren igaliak emateko.

Iñor ezin bizi diteke urik gabe.

Argatik zabaldu du Jainkoak ain ugari.

Urik ez duten tokiak, ilak bezela agertzen zaizkigu.



ZAKURÁ ETA ARAGI-PUSKA.

Zakur bat zijoan bein ibai-ondo batetik aragi-puska aboan zeramala; eta zijoala-zijoala, uretan bere aragi-puskaren eñañua ikusi zuan.

Iruditu zitzayon beste au berak zeramana baño aundiagoa zala, eta ortzetan zeramana utzita urari osk egin zion, eta onela gelditu zan ez egitazko puskarik ez gezufezkorik gabe.

Ori gertatzen zaye askotan, berena gutxi dalako, besterena ařapatu nai dutenai.

URA NOLAKO ERATAN AGERTZEN

ZAIGUN.



Iturburuetan sortzen dan ura, iturriak egin eta gero mendietatik bera jetxiaz-



-jetxiaz, lats edo eřeketan biltzen da.

Lats edo eřeka oetako batzuek al-kartu-ta ur asko biltzen dute, eta or-duan ibaya deritzaye.

Urak bilduta gelditzen diran tokiyai aintzirak edo zingirak deitzen zaye.

Ibayetako urak itsasora joaten dira; eta ala ere ez du onek beñere gañez egiten.

Gero itsasotik aterako dan luřiak odehyak sortuko ditu: odehyak euria egin-go dute; euritik iturriak sortuko dira;

iturrietatik ibayak, eta ibayak beřiz ere itsasora biur-tuko dira beti

Jainkoak emandako bidetik.



EGAZTIAK.

Jainkoak, egan ibili zitezen, egin zitu-
en egaztiak.

Aidean dute beren bizitokia eta an
ibiltzen dira gora ta bera arin ta bizkor.

Bere kabietan arautzak egin eta arau-
tzetatik txitoak ateratzen dituzte.

Egaztiak, era askotakoak dira. Txe-
petxa oso txikia da, eta aranoa aundi
ta indartsua.

Goizaldean, eguna asten danean,
txoritxoak abestu ta abestu aritzen di-
ra, Jainkoari eskeřak emanaz bezela.
Beren txořotxio ta txiruliruak atsegi-
ñez betetzen gaituzte.

ESAERA ZAĀAK.

Urak dakařena, urak darama.
 Ur aundietan, ařai aundiak.
 Urte euritsu, urte ogitsu.
 Urte elurtsu, urte garitsu.
 Txori bakoitzari, eder bere kabia.
 Olo ibilkari, azarien janari.

UŘEZKO AĀAUTZAK EGITEN ZITUEN OĀOA.


Nekazari batek, urte guzian uřezko ařautzak egiten zituan olo bat omen zuan.

Bařan gizon ura oso diruzalea zan, eta ezin itxo egin nunbait oloak bat-banaka egiten zituen ařautzai, ta iltzea bururatu zitzayon, uře guztia batean ařapatzeko asmoz.

Il zuen bada oloa, bařan alper-alperrik: olo ura bařendik beste olo guztiak bezelakoxea zan eta etzuan bařenen uřerik batere.

Eta an gelditu zan gizon diruzale ura ez olo eta ez uře.

AĀAYAK.



Ařayak urpean bizi dira eta urpean arnasa artzen dufe.

Uretatik ateratzen ba-ditugu, bereala iltzen dira.

Itsasoan sortzen diran ařayai, ur gaziko ařayak deitzen zaye eta oen artean daude txardiņa, legatza, bakaloa.

Besteak, ur gezakoak dira, eta oetan amofaya oso ezaguna da.

Beste batzuek befiz ur gazia ta ur geza biltzen dan tokian bizi izaten dira, izokia adibidez.

ETXEKO ABERE TA PIZTIAK.



Gure etxeetan izaten ditugun abereak, laguntza aundiak egiten dizkigute.

Beyak esnea ematen digu.

Zaldi, asto ta idien indaia, gauzak eta gurdiak eramateko eta lurak lantzeko izaten degu.

Ardiak artilea ematen digu. Oloak afautzak. Katuak beriz, saguak arapatzen ditu.

Eta zakurak etxea zaintzen-eta laguntz aundiak egiten dizkio gizonari.

Katua oso etxezalea izaten da eta sukaldeko beroan luzaro ikusiko dezute aragi-edo aragi-puskaren bat noiz arapatuko duen zai.

Zakura eta katua geyenetan asafe izaten dira. Bañan zitalak ez diranean, alkarren lagun bezela agertzen zaizkigu.

Adizkide izateko, gogo ona izatea naikoa da.

TXITXAÑA ETA TXINGURÍA

Iduritzen zitzayon
urikigaría
txitxañari auzoan
zuen txinguría,
ikusten zuelako
lertutzen lanean
eguna piskatxo bat
ondutzen zanean.
Askotan esan zion,
ez iriz, benetan:
—Ez diat lanik egin
nere egunetan;
eta uste diat nik,
nere mutikoa,
lan egiten duena

dala txit astoa.
Zer ibili bear dek
beti arastaka,
ezin gari ale bat
karayaturika?
Etori eta jeiki,
beti jira-bira,
eramateagatik
ale bat kabira?
Bizi modu txar ori
utzak txinguria;
egin zak nik egiten
deraden guzia.—
Txinguriak jakinaz
gurasoetatik
ezin biziko zala
egin gabe lanik
txitxararen esanik
etzuen aditu
eta beren lanari
oi zion jaraitu.
Bitartean txitxarak
zuan igarotzen
uda guzti-guztia
sasian kantatzen;
baña gaizki jo zion
soñua kukuak;
uda joan eta zuen

atzeman neguak,
eta bai-duelako
kopet itsusia
joan ziran txitxar kanta
eta erausia,
eta buruturikan
udako asea
otzak ekari zuen
berekín gosea.
Txitxara gelditu zan
argala, ixila,
este zimurtuakin
eta erdi ila.
Oroitzen da auzoan
ba-dala zer jana;
dijoa arastaka
txinguriagana.
Eta esaten dio
doi-doya argalez:
—Adizkidea, dizut
eskatzen eskañez
zure gordaidutikan
pixkatxo bat zer jan
nolabait negu beltz au
igaro dezadan.—
Ikusi zuenean
ain argal txitxara,
txinguriak, eginaz

gogotikan para,
—Ara!—esaten dio—
zu onontz, txitxaña?
Kantari ona zera,
beargile txara.
Uda igaro dezu
erausian, kantan,
ni nebilen artean
lertzen lan eta lan.
Eta orain nai dezu
txinguri-nekeak
bete ditzaten txitxar
alpefen esteak?
Ez, ez ofelakorik;
on da ikustea
zer dan mundu onetan
alper izatea.
Ni len nekatu eta
ba-noa jatera;
zu geldi egon zera...
zoaz kantatzera.—

Lagundu bear zayo
beargileari;
ez ordea, beñere,
alpeña danari.

(Ituriaga'k)

ERLEAK.

Batetik bestera, loretik-lore dijoan
elbi antzeko ori erlea da.

Lan eta lan ari da egun guzian lore-
tatik guna gozoa artu ta bere abaras-
kara eramaten.

Abaraska oek, argizaizkoak dira ta
erleak berak egiten ditu.

Abaraska-txulo txikietan gordetzen
du erleak lorien gunaz egindako ezta
beretzat janari izan dezan.

Erleak oso langileak dira, eta beren
bizitzak gauz ari gari asko erakusten
dizkigu.

BI GOLDEAK.



Bi golde salgai zeuden. Bata saldu
zan. Bestea, ordea, saldugabe zoko
batean gelditu zan.

Etxera eraman bezin laister, iriyak erantsi ta bereala lurak goldetzen asi zan.

Eta, orlaxe, egunero lan egiñaz, beti garbi eta beria bezela arkitzen zan gure goldea.

Bestea, beriz, saldutokian geldi egonaz, erdoyez dana bete ta alperik ondatu zan.

Geldi egoteak eta alperkeriak, lan egiteak baño kalte geyago egiten duela erakusten digu ipui onek.

MUTIL ZINTZOA.

Xabierto'k ziba bat arkitu du kalean. Bere Irakasleari eman dio.

—Ziba onek Andoni'rena izan bear du.

—Galde zayozu berari.

Xabierto'k antxe ematen dio bere ziba Andoni'ri.

Andoni oso pozik gelditzen da.

Xabierto ere bai; gauz on bat egin bait-du.

Ez degu besteren gauzik beñere guretu bear.

EZ DA ASAĒTU BEAR.

—Ama: gaur goizean bi mutil asaĒtu dira kalean.

—Gaizki egiña.

—Eta ni joan naiz berengana eta asaĒtu bear ez dala esan diet.

—Ederki esana.

—Eta orduan adizkidetu egin dira.

—Xabierto: tori sagar au; gauz eder bat egin dezu.

—Ama: beste bat ematen ba-didazu, bi mutil ayei bana emango diet, lengo aseĒea aztu dezaten.

ABEREEN KARAXI TA OTSAK.

TxakuĒak zaunkaz ari izaten dira

Katuak miauka.

Zaldiak irintzika.

Astoak aĒantzaka.

Oloak kaĒanka.

Txoriak txioka.

OlaĒak kukuĒukuka.

Ardiak beeka.

Beyak muuka.



ADIZKIDE BI ETA ARTZA

Adizkide aundi bi
dijoaz bidean
elkarékin izketan
alaitasunean.
Artz aundi bat zayote
basotik irtetzen...
lkaraz arbolara
bata da igotzen;
bestea gelditzen da
gaxoa bakañik,
artz aindiari ezin
arpegi emanik.
Zer egin onelako
estutasunean?
Ila ba'litz bezela
jartzen da luñean.
Artzak ez duelako
gorputz ilik jaten

usai egin ondoren
da auñera joaten.
Bereala jatxitzen
da arbolakoa
eta lagunagana
laixterka dijoa:
—Adizkidea, dio,
txit det nik atsegin
zu emen arkitzea
osasunarekin;
zer ikarak ditudan
zugatik eraman
belduñez zu noiz artzak
bear zinduen jan!
Ixilik belañira
dizu ark itz egin;
zer esan ote dizun
nai nuke nik jakin.
—Ara zer esan didan
artzak belañira:
Munduan adizkide-
-era asko dira.
Ez dezu artu bear,
jakizu gaurdandik,
zure adizkidetzat
gizon beldurtirik.

(Ituñiaga'k)

LOREA



Landareak loretan daude. Beren usai gozoa atsegin izaten degu.

Zuaitzak ere loretan daude. Laister lore ori zimelduta, bere ordezt igali edefa sortuko da.

Euri ta Eguzkiaren indaraz egalia azi egingo da.

Eta gero igali oek gure janari izango dira..

TXORI GAXOA.

—Ama, txori bat arapatu det.

—Polita izango da, e?

—Bai, oso polita.

—Zer egin bear diozu?

—Anketik ari bat lotu ta jolasean ibili.

—Ez, ene maitea. Ori gaizki egiña da. Txori gaxo orek ez dizu zuri bature kalterik egin. Utzi zayozu egoan joaten eta orela poza ta bizia eman-go diozu. Gañera umetxoak ere izango ditu eta bera gabe il egingo lirake.

Ez da beñere gaitzik egin bear.

MUTIL ONA ETA

MUTIL GAIZTOA

Xabiertxo k maite ditu bere aita, ama, anai-arebak eta lagun guztiak.

Xabiertxo zintzoa da.

Xabierto'k itxuen bat ikusten due-
nean lagundu egiten dio.


Xabierto'k asko maite ditu lagunak.

Martin, beriz, alpeña da.

Martin gezurtia da.

Martin'i iñorengatik ajolik ez dio.

Izan zaitzte Xabierto bezelakoak,
eta ez Martin'en antzekoak.



SUGEA ETA NEKAZARIA.

Gizon bat zijoan bein
zelaitik etxera
goiz guztian lan egin
eta bazkaltzera.
Ikusten du bidean
etziñik sugea
otzak erdi ilikan
korderik gabea.
Kupiturik sartzen du

gaxoa kolkoan
ango beroarekin
pizteko asmoan.
Etxera joan zaneko
sugea asi zan
kolkotikan kanpora
atera nairikan.
Gañetik botatzeko
gizonak artzen du,
eta suge gaiztoak
orzka pozoitzen du.
Oña esker ederak!
Zitalen eskutik
ez du izango iñork
beñere gauz onik.

Ilabete baño len
suge ura bera
otzak ikaraturik
dator sukaldera.
Ojuka asten dira
etxeko guziak;
jaraitutzen diote
moñoi-nagusiak.
Sartzen da ukuluan...
ba-dabiltza bila;
arkitzen dute eta
uzten dute ila.

Zitalkeriak ez du
beñere gauz onik,
eta iñork ez du nai
ikusit zitalik.

(Itufiaga'k)

BATUKETA



Xabierto'k batuzen ikasi nai du.

—Zenbat dira bat eta bat?—galdetzen dio aitak.

—Bi, jauna.

—Eta bi ta bi?

—Lau, jauna.

—Zenbat sagar daude saski ortan?

—Iru, aita.

—Eta mai gañean?

—Lau, jauna.

—Guziak bilduezkero, guziak bat jota, zenbat izango dira?

—Zazpi.

—Orduan — dio aitak — iru ta lau zazpi dira.

KENDUKETA.



Xabierto'k kenduketa egiten ikasi nai du.

—Biri bat kenduezkero, zenbat gelditzen dira?

—Beste bat; jauna.

Ik baldin ba-dituk lau sagar eta ire la-

gun bati bi ematen ba-dizkiok, zenbat gelditzen zaizkik?

—Beste bi.

—Eta zazpi sagar saski ortan ba-zeudek eta lau kendu, zenbat geldituko dituk bañenen?

—Iru, jauna.

—Ederki, oso ederki.

LUDIA.

Gu bizi geran tokiari, Ludia edo Lufa deritzayo.

Ludia ere, Eguzkia, Ilargia eta beste izafen antzera, borobila da.

Lur gañean ikusten ditugu zelai,
mendi, ibai ta itsasoak.

Itsasoak estaltzen dute luraren gain
geyena.

Mendi tarte bati arana deitzen diogu;
ta ibai-ondoari, ibaia.

Lur aizez ingurutua dago eta aize
ortan arnasa artzen degu.


UDABERÍA.

Lenbiziko enarak datozenean, udabería da. Eguzkiaren argiak, belarren margo orlegiak, loreen irikitzeak, zuaitzen ostozabaltzeak, txorien abesti xamuak eta umien jolasketak, gure biotza pozez betetzen dute udaberian.

Negu beltz ta atsekabea joan da. Ortze urdin ta garbiak gure biotza alaitzen du. Loreak nunai sortzen dira.

Txoriak emen eta an beren kabiak egiteko gai-bila dabilta. Beste batzuek kabietan umeakin daude; eta umetxoak, noizean bein, beren aotxoak irikita daude amak ekartzen dien janariraen zai.

Zoazte udaberiko goiz eder batean baso edo mendi batera. An ezagutuko dezute ongiena, neguaren ondorengo udaberiararen atsegintasuna.



UDABERÍA.

BASOA.

Gure mendiko basoetan era askotako zuaitzak ikusten ditugu.

Ezagunenak oek dira: aritza, artea, gaztaña, lizaña, zumaña, urkia, pagoa, izaya eta beste asko. Etxeak eta beste gauz asko egiteko zura ederak ematen dizkigute guztiak.

Gernika'ko Aritzaren azpian egiten zituzten antziña euskaldunak beren lege zañak.

Gure mendi guziak basoz ondo ornituak bear luteke.


UDARA.

Udara da urtearen aldirik beroena.

Egunak oso luzeak dira udaran, eta gabak laburak. Goizean laueta argi dago eta argitasun orek berak jekitarazten gaitu.

Eta goiz jekitzen dana, ez da beñere damutzen.

Zuaitzak ostoz oso ornitu oi dira



UDARA.

loreak ere beren margo eder ta usai gozoak orduantxe zabalitzen dituzte.

Galburuak ere udaran eldu oi ditu eguzkiak eta orduan asten da nekazaria itayaz lasto luzeak ebakitzen.

Itsasertzetan bizi diranak ere itsaso barearen gelditasunaz eta itsas-aizearen gozotasunaz, atsegiñez beteak arkitzen dira udaran.

Umientzat, batez ere, au da urtearen aldirik ederena.

EGUNSENTIKO POZAK.

Bai gauz edera dala
goizean goizetik
udaran jaiki eta
makil bat arturik
mendian egitea
ibiltxo bat beñik!
Ez da munduan izan
ez orain t'ez lendik
ofek demaigun baño
poz aundiagorik!
Ipar-aize leguna
likurtaz beterik
gure kolkora dator

lorien tartetik;
bazar guziak daude
intzez apaindurik,
urdin-urdin zerua,
pipirika txorik,
eguzkia ere perez
mendien gañetik;
maindire bat bezela
goruntz aroturik
lañu txuri goiztara
ereka-zulotik;
jolasean amilka
ituritxo garbik;
emen aros politak
an krabelin gorik.

(E. Aresé'k)

IGARI EGITE.

Zer gauz edera gorik, bero dagoanean uretan sartu eta bustialdi gozo bat artzea baño?

Alaxen da, bañan, ene umetxoak, ez sartu beñere uretan, ibayan edo itsasoan, igari ondo dakien norbait laguntzeko aldamenen ez ba-dezute. Bestela, ezez ito, zindezteke.

Igari jakitea gauz atsegiña ta bear-beařetakoa da.

Igariketa, gañera, osasungari da.

UDAZKENA.

Udazkenean igali edo frutak biltzen dira.

Egunak laburtu eta gabak luzatzen dijoaz. Bero aundirik ez du egiten eta giro atsegiña izaten da egun geyenetan.

Udara joan dala bereala ezagutzen degu.

Gañera, udara zalako, ikaskizunak ere alde batera utziak zeuden, eta orain beřiz lanean asi bear da.


Beti jai ta beti jolasean ezin bizi gindezkela erakusten digu udazkenak.

Bizi nai ba-degu, lan egin beařean gera.

UZTA-BILTZEA

Au izaten da nekazariantzat urtearen aldirik onena.

Ainbeste neke artu bait-zuen udaberrian luřak lantzen, ongaritzen eta garbitzen.



UDAZKENA.

Eta berak izan zituen bildurak, udarako ekaitz eta kaskabarak guzia galduko ote zion?

Bañan orain nekazaria pozik da: udare ederak, sagar usaidunak ta mats-mordo gozoak bildu ditu.

Lan egin bear da beti, zerbait bildu nai ba-da.

Ereiten ez duanak ez du biltzen.


NEGUA.

Negua da urtearen aldirik otzena eta atsekabierna.

Laño beltzetatik euria dario neguan, eta askotan, otz baldin ba-da, ixil-ixilik baita elura ere.

Bañan neguak bere atsegiñak ere ba-ditu. Etxe-bañenean bildu-ta orduan, ere lan egiten da; ta arats luzeetan sutondoan aldi ederak igarotzen dituzte senideak alkañen artean jolasean edo aita eta amaren irakaskizunak ikasten.

Lan egin dezagun gogotik neguan, gero eguraldi onak etortzeane guras-tera poz geyagoz atera gaitezen.



NEGUA.

EGUZKIA.

Eguzkia da Ludiari eta guri argia ta beroa ematen diguna.

Berari eskeñak bizi gera. Eguzkia oztuko ba'litzake, bereala ilko giñake.

Eguzkia gure Ludia baño askoz aundiagoa izanañen txikia ba'litz bezela agertzen zaigu, oso uruti bait-dago.

Ba-dirudi, Eguzkia Luñaren inguruan dabilela. Eta ez da oñela. Luña da Eguzkiaren inguruan dabilena.

Gañera Luñak egun bakoitzean bira bat ematen du bere ardatzean.

Eguzkia ateratzen dan tokiari Eguzki-aldea edo Sortaldea deitzen zayo. Eta sartzen dan tokiari Sartaldea.

Ipintzen ba-gera beso-zabalik, esku-bikoa Sortaldera eta ezkerkoa Sartaldera degula, aũean daukaguna Ipañaldea da, eta atzean Egoaldea.

Eguerdian Eguzkia Egoaldean dago.



EGUNSENTIA

Egun sentia dator
goizero bezela
argi-txintaz banatzen
mila sentiera;
gero txokon batetik
mendien gañera
irtengo da par-iriz
eguzki epela
nagitasun guziak
luñari kentzera.

—
Goi-argitzen danean
zerbait urutia
ezkututzen dijoa

izañen argia;
urdin-urdin jantzirik
zerupe garbia
laixter osatutzen da
ud'egun beña
ainbeste poz ta atsegin
dakañen aldia.

(E. Arrese'k.)

GIZONAREN BIZIA.

Gure bizia, oso labuñ da.


Jayotzen da gizona, eta gero ainbeste lanetan azi ta bizi ondoren, azkenik, zartutakoan il egiten da.

Bañan askotan ez da zartuta iltzen. Askok, gaitzen bat arapatuta, gazterik arkitzen dute eriotza.

Ez uste izan ba, ene umetxoak, betiko zeratela.

Ikusten degun guziak, bere azkena izango du.

Jainkoak bakarrik iraungo du beti: Bera bakarrik da betiko.



İLUNABAÑA.

Ixil-ixilik arkitutzen da,
ixil-ixilik, mundua;
ez da mendian ezer entzuten
ez bada ontzen oyua;
ixilik dago tanta-gañean
lengo txori beñitsua,
lumatxo bigun aña-tartean
gorderik bere burua.

Gero goi zabal miragaña
uñez apaintzen danean,
otoitz egiñik beti bezela
oyeratzen geranean...
gau izartsuak estaltzen gaitu
lañuzko maindirepean
erugabeko lo, lo goxoa
egin dezagun pakean.

(E. Arrese'k.)

ORTZEA EDO ZERUA

Jaso itzazute zuen begiak zerurontz.
Eguna baldin ba-da ta garbi ba-dago.



antxe ikusiko dezute zuen gañean
Eguzki edeña, argia ta berotasuna uga-
ri dariola.

Gaba baldin ba-da ta ozkarbi ba-



-dago, beñiz, antxe ikusiko dezute gau-
zik arigariena: Aneika ta aneika, mila-
ka ta milaka argi txiki bizi. Argi oyek
izarak dira. Eta izar oyek gure Eguz-
kiaren antzekoak dira. Oso uruti dau-
delako agertzen zaizkigu txiki.

Zenbat izar ote dira? Inork ere ez
daki; ezin zenbatu ditezke.

Gure Eguzkia ere izar bat da, eta
ez aundienetakoa; beste asko ba-dira
aundiagoak.

Eguzkiak zortzi Inguruko nagusi di-
tu bere inguruan: Merkurio, Artizara,
Ludia, Marte, Jupiter, Saturno, Urano,
ta Neptuno. Gañera beste Inguruko
txiki asko ditu.

Inguruko guzti oek berez argirik ez
dute; izarbelak dira, eta guri egiten di-
guten argia, Eguzkiak emana dute.

Argiak iroiren edo segundo bakoit-
zako 300.000 mila kilometro ibiltzen
ditu.

Eguzkiaren argiak gugana irixteko
zortzi minutu bear ditu.

Bañan izarak askoz urutiago daude.
Bertena dagoanaren argiak bost urte
bear ditu gugana eltzeko.

Beste asko oraindik ere urutiago

eta baita milaka ere bear dituzte onera iristeko.

Izañik ederenetako batzuek Antares, Sirius, Aldebaran eta Arkturus dira.

Izar aundi oei, irudi bat bezela agertzen zaizkigunean, *izartiak* deitzen zaie.

Izarti ederenetako bat Orion (Euskeraz "Iru Eregeena") deritzayona da.

Ezin genezake neurtu izartegiaren aunditasuna. Berak azaltzen digu garbi, bere Egile, gure Jaungoikoaren aunditasun neurigabea.

İLARGIA.

Izañak argi egiten dute, bañan *izar-ilak* edo *izarbelak* argirik ez dute.

Ilargia izarbel bat da, eta Luñaren inguruan ibiltzen da.

Luña edo Ludia baño askoz txikiagoa da. Bertan agertzen diran itzalak, ango mendiak dira.

Mendi asko ta aundiak dira ilargian.

Bañan, dirudienez, an ez da iñor bizi.

Guri bezela, ilargiari ere Eguzkiak ematen dio argia.

ZUAITZAI EZ KALTERIK EGIN.

Zuaitzak dira gure mendien jantzirik edereña. Zuaitzik gabe gure mendiak soil eta bizirik gabe bezela egongo lirake.

Berak ematen digute itzal gozoa udarako egun beroetan.

Berak ematen digute, gure etxeak, gure mayak, esertokiak eta beste gure tresna asko egiteko gaya.

Berak ematen digute gure janariak egosi ta eretzeko erékaya.

Berak laguntzen digute neguko otzetan gure etxeak epeltzen.

Zuaitzik gabe gure ibayak agortuko lirake; gure olak gelditu egin bearko luteke.

Kentzen dan zuaitz baten ordeztan bi beñi ipiñi bear lirake.

EGURALDI ONA



Gaur eguraldi edera degu.

Goizetik nastuko zala zirudien, baina odeitartetik eguzkia atera da ta guzia argitasunez bete du.

Mendi goituak oraindik ere lausotan bilduak daude.

Toki eguteretan, ospeletan baño giroago dago.


Itzala udaran atsegiña izanaren, neguan atsekabea da.

Jayegunetarako eguraldi edera bezelakorik ez da, mendi batera igota ederki egurasteko.

Eguraldi ona, guzientzat atsegiña izaten da.

Txoriak, batez ere, ba-dirudi eguraldi ona danean, egiten dituztela beren txorotxiorik ederrenak.

EGURALDI TXARA



Aize indartsu onek azkenik ekaitza ekafi digu.

Euri-jasa aundia da. Kaskabaña ere nunbait izan bear du. Kaskabañak, eta batez ere ariak, kalte aundiak egiten ditu.

Tximist aundia zan oril.. Bai turmoya ere, ikaragaña izan da!

Etxegañean tximistoratza ba-degu ta ba'liteke an eroria izana.

Ara! Eguzkia odei-tartetik irtetzen asi da... Auxen da ostergi edera!... Bai margo garbiak dituela! Goña, urdiña, oria, orlegia...

Ez bada bildur izan, eguraldi txararen ondoren eguraldi ona etoriko da-ta.

EKAITZA

Estaltzen dute zerua odoi
izugariak,
guzia dar-dar ipintzen turmoi
dunbotslariak;
bildurtzen gaitu gau ilunean
tximistargiak,
i'ez gutxiago ondorenean
jazar aundiak.

Zatitzen ditu aizeak gogor
mendiburuak;
urutzen bean ujolak alor
oparotsuak;
jasa bizia dakar berela
ekaitz-oyuak
misto suminkor latza bezela
sube-txistuak.

Sututzen dira tximistaz jota
zuaitz igarāk
gofitzeraño bere sugaraz
odoi nabařak;
itsas aldera gainka dijoaz
ibai azkařak
gero ta geigo puřukatuaz
mendi-baztařak.

(E. Afese'k.)

EĒEKAYAK.



Janariak egosi ta eřetzeko, sua egin
bear da.

Sua egiteko, eřekiñak, txirbil, ezpal
eta eguřak bear dira.

Su artu bezin laister, eřekiñak gařa
ateratzen du.

Sua, eguř-ikatzaz ere egin diteke.
Ikatza ikazkiñak egiten dute.

Txondařa deitzen zayo ikatza egi-
teko eguř-pilari. Egurpila, luřez estali
eta azpitik su eman-da, piřinka-piřinka
ikatz biurtzen da.

Sukaldean eřetzen degunak egiten
duen kea, kebidetik gora joaten da.

Ařikatza, lurpetik ateratzen da. Le-

nago, orain mila urte asko dala, baso aundiak ziran lur gañean.

Baso oek gero, urpean ta lurpean geldituta, ari biurtu ziran.

Eta orain, ainbeste urte ondoren, arikatz orixe da erékairik onenetako bat.

Arikatzatik beste gai asko ere ateratzen dira.

BURNIA

Burnia ere lurpean izaten da, bañan lurpean danean ez da oraindik burni, burnikia baizik.

Meatzetatik ateratzén dan burnikia labetan urtu bear da burnia egiteko.

Burnia sutan landuta altzairua egiten da. Altzairua, burnia baño gogoñagoa da.

Burnia, gauz askotarako erabiltzen degu. Ezin egingo lirake milaka gauz burnirik gabe.

Eta ala ere gizona urte askotan bizi izan zan burnirik ba-zanik ere jañin gabe.

Orduan tresnak zurezkoak eta añizkoak izaten ziran.



AIZKORA ETA KIRTENA

Egurgile bat
sort-egitera
joan zan basoan bañena,
eta bidean
galdu zitzayon
aizkoratikan kirtena.
Sort-egiteko
beste beñi bat
egin nairik aizkorari,
gaya eskatzen
asi zitzayon
an zan zuaitz bakoitzari.
Iñork etzion
gairik eman nai,
eta arteak bakañik
adar metxo bat
eskeñi zion
gaxo artaz kupiturik;

kirten beña
egin ondoren
sartzen dio aizkorari,
eta jo-ta-jo
or asten zayo
arte arixe berari.
Au ikusita
asten dirade
zumañak eta lizañak,
arte onari
gogor egiten
oju eta deadañak:
—Asto aundia,
(esaten dute)
ez al ekien oraindik
egurgileak
bizi dirala
guk galtzen degun bizitik?
Oña zer esker
ematen dian:
orain asi dek igandik;
sañi ez geatzik
bat bakañikan
basoan utziko zutik.
Iri bakañik
egin ba-zian,
kaikurzar oñi, kaltea
ezer ez uken;

baña guretzat
ez dez izango obea.

Bere etsayari
eman ba-dio
noizbait norbaitek eskua,
len edo gero
ikusiko du
galdurik bere burua.

(Ituñaga'k)

GARIA

Garia ereiteko lenbizi luña landu
bear da.

Luña goldeaz iraultzen da.

Luña iraulita gero sokor-jotzaleaz
sokoñak jo bear dira.

Ondoren garaleak erein.

Andik ilabete batzuetara antxe erne-
ko da garia.

Galburuak egin ta eldu diranean be-
riz, garia ebaki ta bildu egiten da.

Bildu nai ba-da, erein egin bear da.

AIZEA



Aizez inguratuak bizi gera, alde guzietatik. Aizerik gabe ezin bizi gindezke.

Arnasa artzean, aizea sartzen zaigu bañeren, ta bañengo odola garbitu egiten digu aizeak biriketan.

Bañan ortarako aize garbia bear da.

Mendi gañetako aizea, geyenetan bekoa baño garbigoa izaten da.

Toki itxietako aize zikiña artzea, kaltegarri da.

Argatik on da al dan guzian leyoak

zabalik lo egitea, aizea beñitzeko aña beñepein.

ELUÑA



Neguko eguraldi txarretan, goyetan otz dagonean, euriaren ordeztu eluña egiten du.

Umetan nor ez da pozik egon, mara-mara eluña ari duala ikusten?

Eluña ez da euri-bisuts otzak gogortua baizik. Bisuts-tanto txiki oek alkar-ganatuta elur-maloe egiten dute.

Eluña, polita da egun batzuetan ikus-

teko. Bañan azkenerako aspertu egiten du. Zuritasun afeek, ixiltasun afeek, erio-tza gogoratzen digu.

IZOTZA.



Otz aundia egiten duanean, ura oso gogortu egiten da. Otzak gogortutako urari, orma edo izotza esaten diogu.

Izotz puska bat su-ondoan ipintzen bada-degu, ur biurtzen da, eta orduan izotza urtu egin dala esaten degu.

Izotzaren antzera berotan urtzen dira burnia, beruna, zilara, urtea ta beste menasta guziak ere.

Erialde batzuetan, oso otz aundia

egiten dualako, ibayak eta baita itsasoa ere izozten dira, eta gizonak eta gurdiak ere gañean ibili ditezke.

ITSASOA.

Itsasoan biltzen dira ibayetako urak, eta baita ibai oiek ekartzen dituzten ondar, ari ta beste gai guziak ere.

Beñere ikusi al dezute itsasoa? Azkenik ez duan zelai aundi bat dirudi. Itsasoak Jainkoaren aunditasuna agertzen digu.

Bere gaña geyenetan olatuz edo uñez zimurtua ikusten degu. Eta ekaitza danean, ikaragariak dira olatuak.

Itsasoaren ondoa oso aundia da; emen ditugun mendi guziak baño aundiagoa.

Itsasoak egunero izaten ditu bere gora-berak. Goruntz dijoanean, *izgora* deitzen zayo; eta bera dijoanean, *izbera*.

Legoña ta itsasoa ikutzen diran tokiari, *izbaztera*.

Eta itsasoan sartzen dan legor-zatiari, *lurmutuña*.

ONDARTZAN



Xabiartxo eta Iziartxo oso onak dira, ta aitak eta amak Donosti'ko ondartzara eraman dituzte.

Umien poza ain toki ederean arkitu diranean!

Bereala asi dira ondaretan zuloak, tontorak eta zubiak egiten.

Naiko jolastu ondoren Xabiartxo'k galdetu du:

—Aita, zer da mendi tontor ura?

—Ura? Ugarte bat. Ur-artean dago-lako, urez bildua dagolako esaten zayok Ug-artea.



—Eta an aurrean dijoan gauz luze ori?

—Ori? Afaun-ontzi bat. Or ziaztik afauntzale batzuek beren afaunaz ontzixo arin ori aurrea daramatela.

—Eta beste gauz aundi ura?

—Ura? Aize-ontzi bat. Zapi aundi ayeke zabaldu-ta aizearen indararak daramalako esaten zayok aize-ontzia. Beste ayeke luñin-ontziak dituk, eta luñinaren indararak ibiltzen dizkik.

Naiko jolastu eta asko ikasita gero etxera joan ziran guziak.

Umeak, onak diranean, beren gurasoak pozik eramaten dituzte onelako gauz ederak ikustera.

AZTUNTASUNA

Ari bat luñetik jaso nai degunean, ikusiko degu betik zerbaitek eusten ba'lio bezela zail egiten zaigula jasotzea.

Ari ori, beste gauz guziak bezela, aztuna da. Ariaren aztuntasunak egiten

du jasotzekoan guk zailtasun ori arkitzea.

Gauz guzien aztuntasuna ez da berdiña: burnia, lastoa baño aztunagoa da.

Aztuntasuna neurtzeko, *Azta-neurkia* erabiltzen degu.

BELEA ETA SUGEA



Bele batek sugea lo zegoala ikusita joan eta mokoaz afauntu zuen. Bañan sugea esnatu-ta, beleari lepoan bildu eta ito egin zuan belea.

Gauzak egin baño lenago, ondo ikusi bear dira, bestela gauz ona arkitzea uste degunean, askotan txaña irtetzen zaigu.

IZKUNTZAK.

Jainkoak gizonari emandako gauzik ederenetako bat izkuntza da.

Izkuntzaren bidez adierazten ditu gizonak bere gogoak, bere atsegia, bere atsekabeak.

Era askotako izkuntzak dira; abenda geyenak ba-dute berena.

Izkuntza oek ere ez dira alde guzietan berdin izaten. Izkuntza bateko berdiñak ez diran erai izkelgiak deitzen zaye.

Ludian zabalduenak diran izkuntzak, ingelera, pantzera, doitzera eta españera izango dira.

Gure izkuntza, euskera da. Ludian dan izkuntz zarenetakoko bat da; eta ikasi duten jakintsu guziak, bere edertasunaz afituak gelditu dira.

EUSKALERÍA.

Ara zein alai dagon
gure sorteria
aritz, pago ta lizar
bikañez jantzia.
Alde bateko mugan

itsas ugaria,
arkaitza jo f'astintzen
bere apar txuria;
saroï oparotsuak,
kerizpe geldia,
baseñitxoak nunai
ta nunai pakia;
mendi-gain bakoitzean
txabola txikia,
artalde bat ondoren,
gero... gurutzia!

(E. Atese'k).


EUSKALERIAREN EDERTASUNA

Ez guk onela diogulako, afitzak ere
ala diotelako baizik Euskaleria,
ludiko tokirik ederenetako bat da.

Zelai edera gerri ditu nun-nai.

Nun-nai zuaitzez ongi ornitutako
mendiak: Orhi, Aizkoñi, Aralar, Anboto,
Gorbea ta Ernio dira goituenetakook.

Ibai oparoak ongaritzen dituzte zelai eta ibarrik, eta erabiltzen ainsteste ola ta lantegi baztar guzietan: Ibaizabal, Mundaka, Deba, Oria,



Urumea, Bidasoa, Erobi edo Nibe, Ebro ta Arga dira gure ibai aundienetakoak.

Bere eri ezagutuenak Bilbao, Gernika, Tolosa, Azpeiti, Donostia, Gazteiz, Bayona, Donibane, Atarátze, Maule, Iruña ta Lizaña dira.

Nork ez du entzun Donostia'ren edertasuna? Izan diteken eririk eder ta politena dala diote ao batez guziak.

Poztu gaitezen, bada, Euskaleri'n jayoak geranok.

EUSKAL-ERESIA

Tontor galenez inguratua
 zauden lur maitagarria
 mendi bakoitza ba' litz bezela
 beronen gordelaria;
 gizon ernai ta zintzo askoen
 sorteri kutsu-gabia...
 luñin beroaz orniturikan
 euskaldun izan zaitia.
 Euskaleria goitu dezagun
 Euskera maite degunak,
 aitortu lengo zorion eader
 berak eman dizkigunak;
 nunai arduraz banaturik itz

amari jayo f'entzunak
alkartasunez bizi gaitean
beti-beti euskaldunak.

(E. Arrese'k.)

ALKARTASUNA INDAÑA DA.



Nekazari batek seme-alaba asko zitu-
en. Bañan geyenetan beren artean
asañe izaten ziran.


Bein ta beñiz, onela bizitzea beretzat
kaltegarri zala esanaren, egunero iskan-
bilen bat izaten zuten.

Batean aitak, guziak bildu-ta arbazta
sortia bat eskuetan artu ta onela esan
zien:

—Ikusten al dituzute arbazta oyek?
Bat-banaka austen oso eñezak dira.
Ikusi ezazute zeok ere. Bañan guziak
alkartuta sorta bat egiten ba-degu nork
autsi? Zuek ere guziok alkartzen ba-

-zerate, alkañi lagunduaz, sendo izango
zerate; bañan banakatuezkero laister
galduko zerate. Alkartasuna indaña da:
izan au beti gogoan.

LANTEGI ETA OLAK.



Ola deitzen zieten len burnia urtu
eta lantzeko egiten ziran etxe aundiai.
Oraindik ere nun edo an ikusten dira
ola zañak.

Bañan gaurko egunean era asko-
tako olak ditugu: ingi-ola edo paper-
olak, iltze-olak, txapel-olak eta bes-
te asko.

Ola aundi oetan langile askok lan
egiten dute, eta makina edo traman-
kuluen bidez egunetik egunera gauzak
eñezago egiten dira.

Arigariak dira ola oyetan diran
aufferapenak. Lenago langile batek

amar gauz, egun guzian gelditu gabe lan egiñaz, egiten bazituen, orain, ia neke gabe, eun edo beñeun egin lezazkike.

Gizonak sortutako auferapenak ari-gariak dira.

SUMENDIAK

Mendi batzuek, beren mutuñetik, autsa, kea ta sua botatzen dute. Eta *sumendiak* deitzen zaye.

Askotan ke utsa dariotela egoten dira luzaroan, bañan noizean bein *su-ta-gar* asten diranean, gizon biozdunenai ere bilduñ sartzten diete.

Ango luñikarak, ango turmoi ta tximistak, ango auts-erortzeak egiten duen ilunpeak, edozein izutzen dute.

Sumenditik urtua ateratzen dan *laba* goriak eñi asko ta asko kiskali ta galdu izan ditu.

Itali'ko Napoli'n dagon Besubio-sumendia, oso ezaguna da.

Orain bi mila urte berak auspean estalia utzi zuen Pompei eñi edeñ, urte asko ez dala autsa kenduaz antxe agertu dute lurpetik italiaræk.

IDAZKETA



Jainkoak egin zuenetik bertatik gizonak itz-egiten ba-zekian; bañan alaz ere, urte asko joan ziran beste gauz ari-gari au sortu zuen arte: bere gogoak, bere itzak, ariñ, olean, lañuan, paperean, ikusten diran leño edo ikuñaz idatzi ta iraun-araztea askoz geroztik sortu zuan gizonak; eta orixe da idaztea.

Iñork ez daki nor dan idaztea sortu zuana.


Idazkera asko dira. Batzuek ezkeñetik eskaira idazten dute, guk bezela; besteak eskuitik ezkeñera; besteak goitik bera eta beste batzuek betek gora.

Idazkortzaz idazten degu: axotean, tintan, mutuñ bustiaz.

Idazketari eskeñak, iritxi zaizkigu gaurdaño antsiñako jakintsu askoren gogo ta asmo edeñak.

Itzak egan joaten dira, bañan idatziak iraun egiten du.

IDAZTIA.



Orain eskuetan daukagun au, *idazti* bat da, liburu bat da.

Idazti onek *ofiak*, eta oñi bakoitzak bi *ofialde* ditu. Oñiak, zuriak dira. Izkiak, beltzak.

Oñiak, ingizkoak, paperezkoak dira.

Gañekoari *azala* edo idazti-azala deitzen zayo.

Idaztiak, len, eskuz idatziak izaten ziran; bañan 1450'gañen urtean Gutenberg doixtañak irarkintza sortu zuenezkero, irarkiñez irañiak egiten dira.

Iartzeko berunezko izkiak erabiltzen dira. Izkiak bear bezela ipiñi ondoren makina batean jañi eta axotez beztu bear dira; eta gero ayen gañean ingi edo papera zapalduaz irarketa egiña gelditzen da.

Onelaxe, eta baita beste era beñia-goetara ere, egiten dira gaurko egunean ainbeste ta ainbeste idazti eta ainbeste eta ainbeste izpeñgi.

Irakurtzea, ogia bezin egunerokoa da gaur askorentzat.

LUDIAREN ZATIAK.

Bost dira: Europa, Asia, Apirka, Ameriketa eta Ozeania.


Europa da txikiena, bañan baita aufferatuena ere. Bertan bizi diran abenda geyenak zuriak dira.

Asia da zatirik aundiena. Ludiko mendirik goituena antxen dago. Bederatzi mila neurkin edo metro baño geyago ditu Imalaya'k. Asia'n bizi diran abenda asko, orietakoak dira.

Apirka da zatirik beroena eta ango abenda geyenak beltzak dira.

Ameriketa bi pusketan ebakia dago: goikoa eta bekoa. Bekoan dago ludiko ibairik aundiena: Amazonas-ibaya.

Kolon itsasgizon bulartsuak arkitu zuen Ameriketa. Bañan, askok uste dutenez, ura baño lenago añantzale euzkotañak bai omen ziran ara iritxiak.



Ozeani geyena ugarte txiki askotan sakabanatua dago. Ugarte oetan bat, oso aundia da: Australia.

ELKANO



Elkano euzkotala izan zan ludi guzia lenbizi inguratu zuena.

Biotz aundiko getariar au, Sanlu-kar'tik beste askorekin bost ontzitan atera zan Beko Amerika'runtz. Andik India'rako bide befi bat arkitzeko asmotan zijoazen. Magalanes zuten buruzai.

Magalanes'ena deritzayon Itsas-estua arkitu-ondoren, Pilipin-Ugartietara iritxi ziran.

Bañan an, Magalanes angotañak il eta, bere lagunak Elkano jañi zuten agintari; eta gose, neke ta naigabe ar-

tean ludi guzia inguratu ondoren, bigean iru urte igaro ta gero, an iritxi ziran beriz ere len irtendako tokira 1522'ko Agoñaren 6'an.

Izan ditzagun beti gogoan Elkano bezelako gizonak, beren antzera guk ere biotza sendotu dezagun.

GUZIOK LAN EGIN BEAR DEGU.



Eguzkia atera da. Eñian eta mendian guziak oetik jeki dira.

Amak bere ume-
txoak jantzi ta gar-
bitu ditu. Aita
bere lanetarako
etxetik irten da.
Guziak, batetik bes-
tera, beren eginkizu-
netara dijoaz.

Lantegietan, ole-
tan, saltokietan, lan-
gileak batu dira be-
ren lanari ekiteko.

Argiña, ormak egi-
ten asi da; zurgiña, bere zura ta egu-
ñak lantzen; burñigiña, altzairu ta bur-

niak erabiltzen; jostuna, soñekoak eba-
kitzen; oñetakogilea, oñetakoak egiten.
Sendagilea ere badijoa bere gaxoak



ikustera. Irakaslea beriz bere ikasleai irakastera.

Ene umetxoa: gizon guziok lan egin bear degu, batzuek batera eta besteak

bestera, batzuek eskuz, besteak buruz. Lan gabe ez dago ez janaririk, ez jantzirik, ez bizitokirik, ez pozik, ez atsegiñik.

Guziok lan egitea Jainkoaren gogoada.

IZADIAREN IRU ZATIAK

Izadi guzia, Jainkoak egiña da.

Ari bati begira zayozu: ez du zentzunik eta bere tokitik ezin igitu diteke. Bizirik ez du. Onen antzeko gauza guziai *Meak* deitzen diegu.

Begira zayezu orain belarri, loreai, gariari eta sagar eta udareai. Oyek ere zentzunik ez dute eta ezin ibili ditezke; beren zañez luñari lotuak daude. Bafian azten dira eta bizi dira. Oyei, landareak deitzen diegu.

Begira zayozu orain eguzkitan lore batetik bestera margo ederez jantzita dijoan mitxiñika, edo adarrik-adar arin ta alai dabilen txori abeslariari. Oyek beste zerbaite dira. Berak berez nai duten tokira ibili ditezke, berak badakite zer dan atsegiña ta atsekabea. Abereak deritzaye.

Mea guziai batean, *Meadia* deritzaye; landare guziai, *Landaredia*; eta abereai *Abeldia*.

Oek dira Izadiaren iru zati nagusiak.

ABELDIA



Abelitzian ikasten dira abereai dagozkien gai guztiak.

Abereak, bi eratakoak dira:
Ezurdunak eta *ezurgabeak*.

Ezurdunak bost eratakoak dira:

- 1 Bulardunak.
- 2 Egaztiak.
- 3 Nañastariak.
- 4 Ur-lurtañak.
- 5 Añayak.

Ezurgabeetan daude:

- 1 Armiamak.
- 2 Zomoñoak.
- 3 Añak.
- 4 Eun-oindunak.
- 5 Otañayak.

Gañera ere ba-dira Ezurgabeetan Abel-landareak (Zoofitoak), Soin-berak (Moluskoak) eta Zomortxoak (Mikrobioak).

ABELDIA: BULARDUNAK

Bulardunak aboan ortz-agiñak eta lañuan ilea dute, eta beren umeak esnez azten dituzte.

Geyenak lau-oindunak dira eta biriken bidez artzen dute arnasa. Odol beroa dute, eta geyenak ere lur-gañean jayo, azi, bizi ta ibiltzen dira.

Batzuek noiznai lufean eta noiznai uretan bizi izaten dira, eta oyei ur-lurdiak edo igarilariak deritzaye.

Bulardunak, era askotakoak dira. Ona emen ezagunenak:

Tximuak dira azkañenak eta gizona-

ren antz geyena dutenak.

Aragizaleak; eta oyetan daude Katua, Legoya, Katamotza, Artza, Otsoa ta Zakuña.

Azal-lodidunak, izenak berak dionez, azala lodia dutenak dira. Oyetan daude Elepantea, Urzaldia, Zefia edo Urdea ta Basurdea.

Ausnarlariak, Oyek lasterka jaten dute, bañan gero urdaletik beñiz aora jandakoan ekari ta aoan ausnartzen dute. Beya, Aaria, Oriña, Basauntza, Orkatz (Gamuz), Konkorduna ta Bikonkorduna, ausnarlariak dira.



LEGOYA ZAÑEZ ILTZEN.

Legoi guztiz aundi bat,
ez il bai ilean
luze-luze etziñik

zegoen luñean:
urteen zamak zeukan
ezin igiturik
ez baitzuan gaxoak
zara beste miñik.
Oruaz mendiz-mendi
zanean lenbizi
abereak zebiltzan
argandik igesi;
bat bakañikan etzan
guztien artean
itxorongo zionik
iñolaz bidean.
Orain ikusirikan
etziñik luñean,
esan dedan bezela
ez il bai ilean,
an dijoaz laisterka
txiki ta aundiak
eta ito nai dute
gaxoa guztiak.

Zitalen kontua da
gaxoa danari
egin nai izatea
para eta iri.
Gizon zintzoak ez du
onela pentsatzen;

gaxoenari dio
geyena laguntzen.

(Ituñaga'k)

ABELDIA: BULARDUNAK

(Jañaipena)

Azkazal-batekoak. Oin bakoitzean azkazar bat bakañik dutelako, deritzaye onela. Beyak eta, bi bait-dituzte.

Zaldia da era ontakoetan abererik edereña. Buru luzea du; belañiak, zuzen eta txikiak; begiratua, bizia; lepoa, luzea; eta anakak, medañak. Ilea motza du, bañan lepo gañean eta isatsean zurda luzeak ere izaten ditu.

Astoa eta Mandoa eztira zaldia bezin edeñak; bañan gizonari laguntza aundiak egiten dizkiote.

Izabereak edo itsasoko abereak, uretan bizi izanañen, noizean bein ur-gañera irten bear izaten dute arnasa artzeko. Oetan daude Balea eta Izurdea.

Balea da gaurko egunean dan abererik aundiena.



TXOÁREA ETA ERBIA

Añano batek zuen
 erbi bat atzeman,
 eta an zeukan itotzen
 bi atzaparetan;
 txoaře batek ustez
 toki segurutik,
 oju egiten dio:
 —Esaten ez dek ik
 ez dala lur gañean
 arkitzen mutilik
 laixterketan i ainbat
 joan ditekenik?
 Orain zertan ago or,
 erbitxoá, geldi
 oñen mutil ariña
 aizen ezkeroz i?
 Onela itz egiten

dion bitartean,
 gabirai bat gañera
 dator bat batean;
 artzen du txoařea
 ařen atzaparak
 eta kentzen diozka
 iri eta parak.

Iñork mundu onetan
 ez dezake esan
 ur onetatikan nik
 ez det bear edan.
 Usterik gutxiena
 guk degun orduan
 arkitu oi gerade
 besteen lekuan.
 Argatikan beñere
 zorigaiztokoaz
 ez degu egon bear
 iriz eta paraz.

(Ituriaga'k)

ABELDIA: BULARDUNAK

(Jaraipena)

Sabelzakeldunak deritzaye sabel-auñean
 zakel bat dutenai. Zakel ortan erama-
 ten ditu amak bere umeak txikiak di-

ranean. Kanguroa da abere oetan ezagunena.

Zomofo-jaleak, deritzaye zomofo-janaz batez ere, bizi diranai. Eta oetan daude Satoña, Trikua ta Satitsua.

Satoña, lurpean egindako bidetatik, zomofo-bila ibiltzen da. Bere begiak oso txikiak dira eta bere ilea oso leguna. Trikua, inork ikutzen duanean, bere zurdile gogor zoñotzetan biltzen da.

Kařaskariak. Onela deritzaye, matalezur bakoitzean dituzten bi ortz luzeen bidez janaria kařaskatzen dutenai. Oyetan ezagunenak, Sagua, Erbia, Muxara eta adaretik adar bizkor ibiltzen dan Kařagoña dira.

ABELDIA: BULARDUNAK (Jařaipena)

Saguxařa. Askok uste dute egan ibiltzen dalako Saguxařa egaztia dala. Bañan ez da egaztia; ez bait-du, ez mokorik, ez lumik. Saguxařa ere bularduna da.

Bere beatz luze tartean duen mintzari eskeřak, egiten du egan.

Gautařa da, eta zomofo kaltegaři asko jaten ditu.

EGAZTIAK.

Oek ere ezurdunak dira, bañan beste ezurdunak ez bezela oek mokoa, lumak, egak eta bi anka dituzte.

Kabian ařautzak egin eta ařautzetatik ateratzen dituzte umetxoak.

Ařautzak iru gai ditu: azala, zurin goa eta gořingoa. Gořingoak tanto txuri bat izaten du, eta uraxe da umearen azia.

Egaztiak era askotakoak dira. Ona emen ezagunenak:

1 *Ařapalariak*: Oyetan daude Ařañoa ta Saya. Aragia jaten dute.

2 *Txoriak*: Enarak, Mitxiguak, Iski-xuak, Txantxangořiak, Txepetxak eta beste askok, zomofoak jaten dituzte.

3 *Oloantzekoak*: aleak iresten dituzte. Olo, Eper, Galeper eta onelakoak dira.

4 *Ankaluzeak*: Olagořak, Egaberek, eta abar.

5 *Igarilariak*: Ateak.

TXANTXANGOÍA

Udara joan ta egun ilunak
ondoren datozenian,
eguzkia ta gure poz denak
ezkutatzen diranian...
zer ari zera orla kantari
ordurik ixilenian,
zer ari zera Txantxangoía
ain era kupigarían?

A, zenbat aldiz ala
jardun txit maitian
txotx baten puntan edo
arantza-tartian
zaudela egon ote naiz
an... aldamenian
nere miñak oroitzen
zure jardunian!

Zure kolore ber-bera duten
osto bakanak luñian
arboletatik erori eta
soil dauden garai berian,
begiak xabal-xabal jañirik
antxe bide baztañian

egoten zera txori gaxoa,
negarez udazkenian.

Papar goñi txikia
lertzeko zorian
lumetan bil-bil año
dadukazunian...
ez dakit nola negar
guziak batian
kabitzen diran zure
kolko politian!

(E. Arrese'k)

NAÑASTARIAK.

Oyek ere, era askotakoak dira. Eza-
gunenak, Muskañak, Surangilak, Txa-
beramak eta Sugeak dira.

Sugetan asko oso gaiztoak dira.
Olakoen ozkak gizon ta abereak be-
reala iltzen ditu.

UR-LURTAÑAK.

Txantxikuak, Igelak, Añobiyoak dau-
de oyetan.

AÁRAYAK

Afai guziak uretan bizi izaten dira.
 Ezagunenak Amofaya, Legatza, Izo-
 kia, Aingira, Txardiña, Txitxardiñak,
 Bakaloa eta beste asko dira.

Beren ezur medar ta luzeai arantzak
 deitzen diegu.

AÁRANOVA ETA AZERIA.



Afanoak bere umetxoai jaten emateko, azari bati ostu zizkion bereak.

Joan zitzayon azeria bereala umien eske, bañan afanoak, bere burua indartsuago uste izan nunbait, eta azeriaren eskabideai par egin zien.

Azeriak orduan, asafeturik, afanoa

zegoan zuaitz edo arbolaren azpian su aundi bat piztu zuen. Bereala garak eta kea afanoaren kabiraño iritxi ziran. Eta onek bere umetxoak ito egingo ziralara ikusi zuanean, azariari bereak biurtu ziozkan sua itzali zezan.

Ez zaye bada gu baño txikiagoai kalterik egin bear, berak ere guri kalte egiteko bidea arki lezateke-ta.

ABERE EZURGABEAK.

Bere izenak dion bezela abere oyekek ez dute ez ezurrik eta ezta odol goñirik ere. Abere oyekek guziak, anakak dituzte oso ugari, batzuek geyago eta besteak gutxiago.

Bost eratakoak dira:

1 *Armiarmak*, egorik ez dute. Zortzi anken gañean ibiltzen dira.

2 *Zomofak*. Oek era askotakoak dira, bañan guziak sei anka dituzte.

Oetan ezagunenetakoak Eulia, Erlea, Amonamantalgoria, Kilkeña, Eltxoa, Akaña eta Listofa dira.

3 *Afak*. Oen soña biguña da eta oñik ez dute. Ezagunenak Luf-afa eta Izaya dira.

4 *Eun-oidunak*. Ez deritzaye one-la eun oin dituztelako, asko dituztelako baizik, eunera iritxi gabe. Geyenetan berogei dituzte.

5 *Otafayak*. Ezurgabeko abere oek ur azpian arnas artu dezateke.

Oetan ezagunenak Otafaya, Misera ta Zangufoa dira.

ABEL-LANDAREAK

Abere oyek landare batzuen antza dute beren adarretan, eta abel-landareak deitzen zaye.

Ezagunenak Korala, Belakia (España) eta Itsasoko Izaña dira.

Guztiak itsasoko uretan bizi izaten dira.

SOIN-BERAK.

Oen soña edo gorputza oso biguñia izaten da eta geyenak azal gogor batean bilduak bizi dira.

Ispel edo Ostrak, Barekurkuloak (Karakolak), Bareak eta Amañatzak soinberak dira.

ZOMORTXOAK (Mikrobiyoak).

Zomoño txiki batzuek dira oyek. Txikikuskiñaz (Mikroskopiyoaz) ez bada ez dira ikusten.

Gaitz ikaragarri asko zomortxo oyek sortuak dira.

LANDAREDIA



Landareak bizi, azi ta iltzen dira, baina ezin beren tokitik igitu ditezke. Zentzunik ere ez dute.

Iru eratakoak dira: *Zugatzak*, *zugazñoak* eta *belafak*.

Landare baten zatiak oek dira: za-

ñak, enboña, ostoak, loreak eta igaliak (frutuak).

Zañak biltzen dute lurpean landarearentzako janaria. Janari oni *izerdia* deritzayo, eta mami ta azal-artean gora adaretaraño igotzen da.

Enboñaren zatiak biotza, mamia eta azala dira.

Ostoen bidez landareak, aizean dauden gai batzuek ere biltzen ditu. Ta orixe da landarearentzat arnasa artzea.

Lore baten zatiak batez ere ontzia, oritxoak, ariak eta autsa dira.

Igaliak bañenen aziak ditu.

Landare batzuek loregabeak izaten dira eta oetan daude sisak eta goroldiyoa.

AZERIA ETA MATSAK

Zintzilika daudela
ditu azeriak
ikusten mats-mordoak
eldu ori-oriak;
jartzen da begiraka

gaxoa goseak;
bañena ibiltzen zayo
jateko zaleak.

Saltoka asitzen da
alegin guztian;
ordu bian ba-dabil
ezin iritxian.

Ikusi duanean
eztuala artzerik
matsai esaten die
begiak jasorik:

—Zaute, zaute, mordoak,
zaute ostopean;
etzerate oraindik
jañi sasoyean.

Zerbait nai eta ezin
ba-degu iritxi
azeriak bezela
bear degu utzi.

—Zaude, zaude, esanaz,
zaude or berean;
oraindikan etzera
jañi sasoyean.

(*Ituñaga'k*)

MEADIA.



Meak (Mineralak) bizirik ez dute, ez dira azten, eta berez beti toki batean egoten dira.

Gaurko egunean ezagutzen diran meak bosteunen bat dira.

Ezagunenak lau zatitan bildu ditezke:

1. Añiak.
2. Menastak (Metalak).
3. Gatzak.
4. Erekayak.

Añietan dauzkagu Kareaña, Igeltsoaña, Auntzaña, Arbela, Sukaña eta beste asko.

Menastetan dauzkagu Burnia, Beruna, Urea, Zilara, Zilarbizia, Burnigoña...

Gatzak bi eratakoak dira: Gatzaña eta Itsas-gatza.

Erekayetan daude Añikatza, Añoliyoa, Ikatz-lugarra (Antrazita)...

NEKAZARITZA.

Nekazaritzaren bidez luñak landu eta uzta eder eta ugariak biltzen dira.

Azi txiki batek ale asko ematen ditu luñak bear bezela ongaritu ta lantzen ba-dira.

Golde, atxur, bostortz eta gañerakoaz iraultzen dira luñak lenengo, eta gero azia erein.

Sega ta itayaz egiten da moztuketa.

Gari, olo, arto, artatxiki eta garagarak; babañun, aza, arbi, baratzuri, mats, ñlar ta gañerakoak, aberastasun aundiak ekari ditzayeke luña ondo lantzen dutenai.

EKINTZA.

Ekintza-itzak ola eta lantegietan gizonak egindako lanak adiarazten dizkigu.

Era askotakoak dira lan oek. Milaka gauz egin ta sortu ditu gizonaren buru argiak.

Ekintza'ren biotza indaía da. Indaía bear da ainbeste ta ainbeste traman-kulu edo makina igitzeko.

Añikatzá éreaz ur-luñiak ematen digun indaía asko erabiltzen bada ere, gaurko egunean geyena zabaltzen ari dana tximistindaía da.

Tximistindar-oletatik urutiko lantegi guzietara, ari batzuen bidez, zabaltzen da indaía.

Or nunai mendi guzietan ikusiko dituzute ari oyek. Bañan ez ikutu. Iku-tuezkero ilko zerate-ta.

Añigaria da gizonak, nai bezela, ore-lako indar aundiak noranai eramatea!

SALEROSKETA.

Ez da naikoa gauzak eta gayak egi-tea. Egiten dituenak besteri saldu egin bear dizkio; eta bear dituanak erosi.

Ortik etoñi da salerosketa.

Len gauz batzuek beste gauzaz ordaintzen ziran.

Bañan gero dirua sortu zan, eta orain diruz ordaintzen dira gauzak.


Gizonak sortu zituan neñiak ere, saltzeko gauzetan okeñik izan etzedin.

Onela dauzkagu luzerarako:
Neurkia (metroa) eta bere aundiago ta txikiagoak.

Aztuntasunerako:

Aztaki (kilo) eta bere aundiago ta txikiagoak.

NOLA IBILTZEN GERAN.



Gizona, berez, bi oñez ibiltzen da. Bañan, laxteñago ibili nayeán, aspalditik ibili izan da astoz eta zaldiz ere.

Gurpila ta gurdia ere aspaldi sortuak ditu.

Bañan gero ta laxteñago ibili nairik azkenengo urtietan Bultzi edo Trena sumatu du. Bai auñerapen aundiak eka-



fi dizkiola gizonari sumaketa eder oreak!

Gaurko egunetan oraindik auferago joanda beñiz, eta Gurtariña edo Automobila eta Egazki edo Aeroplanoa sumatu ditu.

Gurtariñak laguntza aundiak ekañi dizkigu; eta Egazkiak, egan, txorien antzera ibiltzeko bidea eman digu.

Itsasorako ere bi gauz arigari sortu ditu: Urpejantzia eta Urpeontzia. Lenbizikoaren bidez gizon bat urpean ibili ditekete, ta lanean ari ere bai, aldi luzean. Eta bigarrenaren bidez ontzi osoa ibili ditekete, bere gizon ta guzi, ordu osotan urpean.

Eta urgañean, lenbiziko ontzi txikietatik ia eria añako ontzitzafetaraño irixi da. Gaurko egunean Ameriketa'ra ere oso egun gutxitan, aste bete baño len, joan ditekete.

BESTE AUÉRAPENAK.

Egunetik egunera gizona auferapen beñiak sumatzen ari da.

Txikikuskiñaren bidez, begi utsez ikusi ezin ditezken xomortxo txiki-txikiak, garbi-garbi agertzen zaizkigu.

Ainbeste zabaldu dan eta ainbeste erabiltzen dan Argazkintza edo Fotografia, dirudienez euzkotar batek, Dageñe'k sortua da.

Urutidazkiaren bidez guregandik oso urun dauden tokietara une berean idazkiak bialdu litezke.

Urutizkia oraindik ere arigariagoa da: gure itzotsa, ari batzuen bidez, oso urutira eramaten du.

Bañan gaurko eguneko auferapenik aundiena Arigabeko Urutizkia da. Onen bidez urutiko erietatik itzegiten zaigun guzia, naiz abesti, naiz itzaldi, naiz eres batz, naiz beste edozein ots, etxetik bertatik entzun genezake, bien bitartean ari bat ere ez izanañen. Gauz arigaria!

KIROLAK



Euzkotar batentzak kirolik edo jolasik edereña pelota-kirola da. Era askotara jokatu ditezke pelotan: eskuz, xarez, saskiz, palaz, luzeran, eñebotean, iristadan (eremontean)...

Euzkotar guziok jolas au, oso maite bear genduke: gure-gurea ta eder-edeña bait-da benetan.

Bañan beste kirol asko ere ba-dira eta ezagutuenetako bat ostiko-jolasa da. Amaika mutilek beste amaikaren aurka jokutzen dute. Amaika oetatik bost dira auelariak, iru erdikoak, bi atzelariak eta bat atezaya.

Beste jolas atsegingarri bat, mendi goituetara igotzea da. Soñia asko sendotzen da ibilketa oek egiñaz. Mendi-goizale izan zaitezte bada.

Beste kirol askoren artean lasterkariak, igarilariak eta abar ere ba-dira.

EDERTIAK.

Gizona, berez, edertzale da. Jainkoak emana du gogo ori.

Aspaldi-aspalditik alaxen agertu du, eta Ejipto'n, Gerkeña'n eta Italia'n, batez ere, antziñako gauz eder afigarri asko ikusi ditezke oraindik.

Margoertiak (Pinturak), Ariantzertiak (Eskulturak), Elertiak (Literaturak), Iratertiak (Arkitekturak) eta Eresertiak (Musikak), batez ere, gizonaren biotzak Ontasuna, Egia eta Edertasuna beti maite izan dituela garbi agertzen digute.

EUZKO-ERESIAK

Ez da izango ludi guzian euzkotaña bezin eres-zalerik.

Jayo bezin laxter bere ama asiko zayo abesti gozoen bat abesten:

Auñ egizu lotxo bat
emango dizut goxo bat:
aitak bat eta amak bi...
zeruko Jaunak amabi.

Umea azi da (dio Donosti Aba ereslari euzkotar ospetsuak); zortzi urte

ditu; bere kidakoakin inguruan eskue-
tatik batuta abesten du:

Makila or eldu da
zakura jotzera:
Makilak zakura,
zakurak otsoa,
otsoak akeña,
akeñak artoa,
akeña ken!
Gure artotik
akeña ken,
aren!

Edo bestela uztayan, eskutatik eldu-
ta, naiz neska naiz mutilak, bizi-bizi,
abestuko dute:

EUSKALERIA 'KO MENDIAK

I.

Batek: Ori-mendi-
fonfoŕeko
pagoaren
punñan,
Guziok: punñaren punñan,
Batek: Ori'ko txoria kantari:
Biek: ...txiru-liru-li
txiru-liru-li...
Guziok: Nork kantatuko ote-du
soñutxu ori?

II.

Batek: Aizkofi'ko
fonfoŕeko
arantzaren
punñan,
Guziok: punñaren punñan,
Batek: erbi-iñudea dantzari:
Biek: ...triki-triki-ti
triki-triki-ti...
Guziok: Nork dantzatuko ote-du
dantza arin ori?

III.

Batek: Anboto'ko
fonfoŕeko
arkaitzaren
punñan,
Guziok: punñaren
punñan,
Batek: sorgiñak kontu-kontari:
Biek: ...uju-juju-ju
iji-jiji-ji...
Guziok: Nork ixilaziko ote-du
algara ori?

IV.

- Batek Aralar'ko
 fonfoŕeko
 Laŕunaŕi-
 punŕan,
 Guziok: punŕaren
 punŕan,
 Batek: Pernando ta bertsolari:
 Biek: ...zuk neri ziri
 nik zuri ziri...
 Guziok: Iñork onduko ote-du
 ziriket' ori?

Nork ipiñi ditzazke emen gure abes-
 tien edertasun guziak? Ezin.

Ene ume maiteak: ikasi itzazute eus-
 kel-abestiak. Ayetxek dira zuen biotza-
 ren samintasunak, zuen pozak, zuen
 atsegiñak ondoen azaltzen dituztenak.

Ene umetxoak! Idaztitxo ontan ikasi
 dituzuten gauz onak gogoan artu itza-
 zute, eta etzazutela beñere aztu Jakin-
 tzak eta Zintzotasunak batez ere, ema-
 ten diotela gizonari izenik onena.

AZKENA

ARKIBIDEA.

	<u>ORIAK</u>
Jaungoikoa	5
Xabierto	6
Iziartxo	7
Garbitasuna.—Ikastolara	8
Ikastolako atean	9
Irakurtzea beaŕa da	10
Gizabidea	11
Gizona.—Giza-Soña.	12
Soin-enboŕa	13
Soin-adafak.—Ikusmena	14
Entzumena	15
Usaimena	16
Gozamena	17
Ikumena	18
Gogoa	19
Jantzia	20
Janariak	21
Ogia.—Ogirik ez da beñere bota bear	22
Edariak	23
Iziartxo'k biotz ona du	23
Esaera zaŕak	24
Eregea ta tximuak	25
Etxea.	26
Kun-kun	28
Eŕia	27
Baseŕia.—Nere etxea.	29
Argia.	30

ORIAK

Argiña ta zurgiña.	31
Alaitasuna. - Langintzak	32
Beste langintzak	33
Menastak. - Mendiak.	34
Abendak. - Azia	36
Zuaitza.	37
Kabiak	38
Enara. - Ume erukitsua	39
Artzaya eta ardiak.	40
Ura. - Uraren beña	42
Zakufa eta aragipuska	43
Ura nolako eratan agertzen zaigun.	44
Egaztiak	45
Esaera zafak	46
Urezko afautzak egiten zituen oloa	46
Arayak	47
Etxeko abere ta piztiak	48
Txitxafa eta txingufia	49
Erleak	53
Bi goldeak	53
Mutil zintzoa	54
Ez da asafetu bear	55
Abereen kafaxi ta otsak	55
Adizkide bi eta artza.	56
Lorea	58
Txori gaxoa	59
Mutil ona eta mutil gaiztoa	59
Sugea eta nekazaria	60
Batuketa	62
Kenduketa. - Ludia	63
Udaberia	64

ORIAK

Basoa. - Udara	66
Egunsentiko pozak	68
Igari egite	69
Udazkena. - Uzta biltzea	70
Negua	72
Eguzkia.	74
Egunsentia	75
Gizonaren bizia.	76
Ilunabaña	77
Ortzea edo zerua	78
Ilargia	80
Zuaitzai ez kalterik egin	81
Eguraldi ona	82
Eguraldi txafa	83
Ekaitza	84
Erekayak	85
Burnia	86
Aizkora eta kirtena	87
Garia	89
Aizea	90
Elufa	91
Izotza	92
Itsasoa	93
Ondartzan	94
Aztuntasuna	96
Belea eta sugea	97
Izkuntzak. - Euskaleria	98
Euskaleriaren edertasuna	99
Euskal-eresia	101
Alkartasuna indaña da	102
Lantegiak eta Olak	103

ORIAK

Sumendiak	104
Idazketa	105
Idazia	106
Ludiaren zatiak	107
Elkano	109
Guziok lan egin bear degu	110
Izadiaren iru zatiak	112
Abeldia	113
Abeldia: Bulardunak	114
Legoya zañez iltzen	115
Abeldia: Bulardunak (Jafaipeña)	117
Txoafea eta erbia	118
Abeldia: Bulardunak (Jafaipeña)	120
Egaztiak	121
Txantxangofia	122
Nafastariak.—Ur-lurtafak	123
Añayak.—Añanoa eta Azeria.	124
Abere ezurgabeak	125
Abel-landareak.—Soin-berak	126
Zomortxoak (Mikrobiyoak)	127
Landaredia	127
Azeria eta matsak	128
Meadia	130
Nekazaritza.—Ekintza	131
Salerosketa	132
Nola ibiltzen geran	133
Beste auferapenak	135
Kirolak	136
Edertiak.—Euzko-Eresiak	137
Mendiak	138

S. S. - D.L. 95/70

GRÁFICAS LOPEZ-MENDIZABAL

Conde de Ibar, 6

T O L O S A

1970

